Aunque en nuestra localidad tenemos servicio de metro y autobús, en algunos barrios y calles fuera del centro la oferta de transporte público es muy escasa. Ejemplo de ello son Andra Mari, Oikosa, Zubileta, Bolue... Además, debemos tener en cuenta que la media de edad de los-as vecinos-as de Getxo es muy alta (más del 30% de los-as getxoztarras tiene más de 60 años) y que los-as getxoztarras que viven lejos de los núcleos urbanos no tienen la posibilidad de acercarse a los servicios públicos en transporte público.

Errealitate horri erantzuteko asmoz, EH Bildutik "auzo-taxi" zerbitzua martxan jartzea proposatzen dugu. Getxoko Udalak martxan jarriko luke egitasmo hau Getxoko taxistekin batera elkarlanean. Zerbitzu hau martxan jarriko balitz, 70 urtetik gorako auzokideek eta mugikortasun behar bereziak dituztenek zerbitzu publikoetara joateko aukera izango lukete taxiz, prezio baxuagoetan: anbulatorioak, metro geltokiak, udal zerbitzuak... Udalerritik kanpora ere ospitale eta osasun-zerbitzuetara joateko aukera ere aztertuko litzateke, Urdulizeko ospitalera adibidez.

Con el fin de dar respuesta a esta realidad desde EH Bildu proponemos la puesta en marcha del servicio "auzo-taxi", un taxi para los barrios. El Ayuntamiento de Getxo pondría en marcha este proyecto en colaboración con los-as taxistas de Getxo. Si se pusiera en marcha este servicio, los-as vecinos-as mayores de 70 años y las personas con necesidades especiales de movilidad podrían acudir a los servicios públicos en taxi a precios más bajos: ambulatorios, estaciones de metro, servicios municipales... También se estudiaría la posibilidad de acudir a hospitales y servicios sanitarios fuera del municipio, por ejemplo al hospital de Urduliz.

Berangon adostu den bezala, auzokideen errenta-maila ere kontuan hartuko litzateke zerbitzu hau martxan jartzeko, hau da: gehienezko errenta zehaztuko litzakeke zerbitzu honetan parte hartu ahal izateko eta beherapena jasotzeko. Beherapen horrek sortzen duen kostua Udalak hartuko luke beregain.

Tal y como se ha acordado en Berango, para poner en marcha este servicio también se tendría en cuenta el nivel de renta de los-as vecinos-as, es decir: se determinaría la renta máxima para poder participar en este servicio y poder ser beneficiario de la rebaja. El coste que genere esta rebaja sería asumido por el Ayuntamiento.

Zerbitzu honi esker, herrigunetik urrun bizi diren 70 urte baino gehiagoko auzokideek eta mugikortasun-beharrizan bereziak dituzten getxoztarrek aukera izango lukete zerbitzu publikoetara joateko "dirutza" xahutu barik, eta Udalak konponbide bat eskainiko luke garraio publikoa heltzen ez den inguru horietarako.

Gracias a este servicio los-as vecinos-as de más de 70 años que viven lejos del casco urbano y los-as getxoztarras con necesidades especiales de movilidad podrían acudir a los servicios públicos sin gastar "un dineral" y el Ayuntamiento ofrecería una solución para estas zonas donde el transporte público no llega.

Horregatik guztiagatik, honako akordio-proposamena egiten diogu Getxoko osoko bikurari:

Por todo ello, formulamos la siguiente propuesta de acuerdo al Pleno de Getxo:

1.- Getxoko Udala BizkaiTaxirekin harremanetan jarriko da Getxoko "auzo-taxi" zerbitzua martxan jartzeko hitzarmena sinatzeko.

1.- El Ayuntamiento de Getxo se pondrá en contacto con BizkaiTaxi para la firma de un convenio para la puesta en marcha del servicio "auzo-taxi" de Getxo.



Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

2.- Zerbitzu horri esker 70 urtetik gorako getxoztarrek eta mugirkotasun beharrizan bereziak dituzten auzokideek beherapena izango dute taxi-zerbitzuan Getxoko zerbitzu publikoetara joateko, beti ere gehienezko errenta-muga bat ezarri eta gero.

2.- Gracias a este servicio los-as getxoztarras mayores de 70 años y los-as vecinos-as con necesidades especiales de movilidad tendrán derecho a un descuento en el servicio de taxi para acudir a los servicios públicos de Getxo, siempre tras establecer un límite máximo de renta.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ibon Rodríguez
Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Eduardo Andrade
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 5 (EH Bildu, E.Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

**89.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO TELEFONO-KABINETAN INTERBENTZIO ARTISTIKOAK EGITEA.**

**89.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ LA REALIZACIÓN DE INTERVENCIONES ARTÍSTICAS EN LAS CABINAS TELEFÓNICAS DE GETXO**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Azken urteetan nabarmen behera egin du kaleko telefono-kabinen erabilerak. Sakelako telefonoen agerpenak batik bat ekarri du zerbitzu honen gainbehera, eta gero eta baxuagoa da telefono-kabinen erabilera. Getxon 15 telefono-kabina baino gehiago ditugu: kabina batzuk oraindik martxan daude, beste batzuk, ostera, apurtuta eta utzita daude...

En los últimos años se ha producido un descenso significativo en el uso de las cabinas telefónicas en la calle. Sobre todo ha sido la aparición de los teléfonos móviles la que ha provocado el declive de este servicio, y el uso de cabinas telefónicas es cada vez menor. En Getxo tenemos más de 15 cabinas telefónicas: algunas siguen funcionando, otras, en cambio, están rotas y abandonadas...

Apirilean zabaldu zen bezala, Telefonicak asmoa du Bizkaiko 354 kabinak kaletik kentzeko, tartean Getxokoak. Zentzua izan dezake erabilerarik ez duten zerbitzuak kentzea, batik bat aspalditik konpondu barik daudenen kasuan.

Tal y como se difundió en abril, Telefónica tiene previsto retirar de la calle las 354 cabinas de Bizkaia, entre ellas las de Getxo. Puede tener sentido suprimir los servicios que no están en uso, sobre todo los que no se arreglan y mantienen desde hace tiempo.

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

Baina telefono-kabinak kendu beharrean, badago beste aukerarik ere: kabina hauei erabilera berriak bilatu, herriko artisten esku utzi eta denon gozamenerako erreminta bihurtu. Hain zuzen ere, Gure planteamendua honakoa da: Telefonicak Udalaren esku uztea telefono-kabina hauek eta Udalak, beharrezkoak diren eraberritze-lanak egin ostean, herriko sortzaileen esku uztea, interbentzio artistikoetarako. Horrela, artista getxoztarrek kale-erakusketak antolatzeko espazio berri bat izango lukete, gutxienez 15 puntu ezberdinekin. Gainera, kabinen izaera eta estetika aprobetxatuz, artelan bakoitzaren azalpena entzun ahalko litzateke kabinaren-telefonotik.

Pero en lugar de eliminar las cabinas telefónicas, hay otra alternativa: buscar nuevos usos a estas cabinas, dejarlas en manos de los-as artistas locales y convertirlas en una herramienta para el disfrute de todos. En concreto, nuestro planteamiento es el siguiente: que Telefónica ponga a disposición del Ayuntamiento estas cabinas telefónicas y que el Ayuntamiento, tras realizar las obras de reforma necesarias, las ponga a disposición de los-as creadores-as locales para sus intervenciones artísticas. De esta forma los-as artistas getxoztarras dispondrían de un nuevo espacio para la organización de exposiciones callejeras con un mínimo de 15 puntos diferentes. Además, aprovechando la naturaleza y estética de las cabinas, se podría escuchar la explicación de cada obra de arte desde el teléfono de cabina.

Herriko artistek erabiltzeaz gain, elkarte ezberdinek ere erabili ahalko lukete euren argazki-erakusketak egiteko (urteurrenak betetzen dituztenean, aspaldiko argazkiak jartzeko...); edota Getxophoto bezalako jaialdientzat ere erabilgarria izan zitekeen, bertan erakusketak antolatzeko.

Además de por los-as artistas locales, el servicio también podría ser utilizado por diferentes asociaciones para realizar sus exposiciones fotográficas (cuando se cumplen sus aniversarios, para exponer fotografías antiguas...); o para festivales como Getxophoto, para organizar en ellas sus exposiciones.

Iazko konfinamendua amaitu zenean Udalak egun batetik bestera Torrene erakusketa-aretoa ixtea erabaki zuen, herriko artistekin aldez aurretik berba egin barik. Hori zen herriko sortzaileek euren lanak erakusteko leku gutxienetako bat, eta Udalak kendu zien inolako alternatibarik eskaini gabe.

Una vez finalizado el confinamiento del año pasado el Ayuntamiento decidió cerrar de un día para otro la sala de exposiciones Torrene sin haber hablado previamente con los artistas locales. Este era uno de los pocos lugares en los que los-as creadores-as de la localidad podían exponer sus trabajos, y el Ayuntamiento se lo arrebató sin ofrecer ninguna alternativa.

Argi dago telefono-kabinek ezin dutela hutsune hau beteko, Getxok behar duelako ganorazko erakusketa-gela bat. Baina telefono-kabinak osagarriak izan daitezke, gaur egun erabilerarik ez

Está claro que las cabinas telefónicas no pueden llenar este hueco porque Getxo necesita una sala de exposiciones adecuada y digna. Pero las cabinas telefónicas pueden ser

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

duten baliabideak aprobetxatuz, eta kaleari ere bizia emanez. Telefono-kabinek urte asko egin dituzte gure artean, eta sormena erabiliz berriro ere erabilgarri jarri ahal ditugu, getxoztarren eta bisitarien gozamenerako.

complementarias, aprovechando recursos que hoy en día no tienen uso, y dando vida también a la calle. Las cabinas telefónicas han permanecido muchos años entre nosotros-as y con creatividad las podemos volver a poner a disposición de los-as getxoztarras y visitantes.

Getxoko osoko bilkurari proposatzen dizkiogun puntuak euren onarpenerako honakoak dira:

Los puntos que proponemos al Pleno de Getxo para su aprobación son los siguientes:

1.- Getxoko Udala harremanetan jarriko da Telefonicarekin, Telefonicak telefono-kabinak Getxoko Udalaren esku uzteko.

1.- El Ayuntamiento de Getxo se pondrá en contacto con Telefónica para que ésta empresa ponga las cabinas telefónicas a disposición del Ayuntamiento de Getxo.

2.- Udalak telefono-kabinak eraberrituko ditu euren estetika mantenduz eta erakusketak antolatzeko aukera eskainiz, horretarako beharrezkoak diren lanak eginez.

2.- El Ayuntamiento reformará las cabinas telefónicas manteniendo su estética y ofreciendo la posibilidad de organizar exposiciones, realizando los trabajos necesarios para ello.

3.- Getxoko Udalak deialdi irekia egingo du herriko sortzaileentzat telefono-kabina hauen interbentzio artistikoa antolatzeko eta euren erabilera arautzeko, modu parte-hartzailean.

3.- El Ayuntamiento de Getxo realizará una convocatoria abierta a los-as creadores-as locales para organizar, de forma participativa, la intervención artística sobre estas cabinas telefónicas y regular su uso.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Nerea Guijarrubia
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Gonzalo Zorrilla
Irantzu Uriarte

**BOZKETA/VOTACIÓN**
BAI/SI: 5 (EH Bildu, E.Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

**90.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PALESTINARI ELKARTASUNA ADIERAZI**

**90.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ MOSTRAR SOLIDARIDAD CON PALESTINA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera

Por mayoría se rechaza la siguiente

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

bota da:

Israelgo auzitegiek Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzotik hainbat familia kanporatzeko eta Israelgo estatuko segurtasun indarrek Al-Aqsa meskitaren aurka egindako erasoaren ostean, Palestinako tentsioa gogortu egin zen berriro.

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak asteartean, maiatzak 11, iragarri zuen Israelek Gazaren aurkako erasoak areagotuko dituela, eta dagoeneko 43 pertsona hil direla, horietako hamahiru adingabeak. Zisjordanian gutxienez bi gazte hil dira, horietako bat adingabea. Ildo horretan, azken egunotan ehunka bonbardaketa egin ditu Israelek Gazan.

Israelgo armadak 5.000 erreserbista mobilizatu ditu eta iraupen zehaztugabeko erasoaldi baterako prestatzen ari da.

NBEk ohartarazi duenez, indarkeria maila horrek eta horiek Palestinako biztanleengan dituzten ondorioez ohartarazi du.

Gertakari horien aurrean, Getxoko Udalak:

- Israelek Palestinako herriari egiten dizkion giza eskubideen urraketak salatzen ditu. Ildo horretan, nazioarteko komunitateari dei egiten dio erasoaldi militar hori geldiarazteko eta elkarrizketarako eta negoziaziorako bideei berriro ekiteko, Mahmud Abbas Palestinako presidenteak Europako erakundeen laguntzarekin Nazioarteko Bake Konferentzia bat egiteko egindako eskaera babestuz.

- Nakbaren 73. urteurrenean, Israelek lurralde palestinarrak legez kanpo okupatzea salatu eta gaitzesten du, eta,

moción:

Tras la orden de los tribunales de Israel de expulsar a varias familias del barrio Sheikh Jarrah de Jerusalén y el ataque realizado por las fuerzas de seguridad contra la mezquita Al-Aqsa, la tensión en Palestina volvió a endurecerse.

El Primer Ministro israelí Benjamin Netanyahu anunció el pasado martes, día 11 de mayo, que Israel incrementaría los ataques contra Gaza, y que de momento ya han muerto 43 personas, trece de ellas menores. En Cisjordania han fallecido por lo menos dos jóvenes, uno de ellos menor de edad. Israel ha realizado cientos de bombardeos en Gaza durante los últimos días.

El ejército israelí ha movilizado a 5.000 reservistas, y se prepara para un ataque de duración indeterminada.

La ONU ha advertido de los efectos de dichos niveles de violencia sobre la población palestina.

Frente a dichos sucesos, el Ayuntamiento de Getxo:

- Condena las violaciones de derechos humanos ejercidas por Israel al pueblo palestino. Asimismo, hace un llamamiento a la comunidad internacional para detener dicho ataque y retomar vías de diálogo y negociación, apoyando la petición realizada por el presidente palestino Mahmud Abbas con ayuda de las entidades europeas para llevar a cabo una Conferencia de Paz Internacional.

- En el 73 aniversario de la Nakba, condenamos la ocupación de territorios palestinos por parte de Israel. Del

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

aldi berean, elkartasuna eta konpromisoa adierazten du herri palestinarraren giza eskubideen defentsarekin, Nazioarteko Zuzenbideak ezartzen duen bezala.

- Palestinarako laguntza humanitarioa indartzeko eskatu die euskal erakundeei, pandemiak are gehiago areagotu baitu haien egoera.

mismo modo, mostramos solidaridad y compromiso con la defensa de los derechos humanos del pueblo palestino, tal y como dispone el Derecho Internacional.

- Solicita a las entidades vascas que refuercen la ayuda humanitaria para Palestina, ya que la pandemia ha recrudecido todavía más su situación.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Nerea Guijarrubia
Inazio Uriarte
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Javier Elorza
Ignacio Uriarte

**IRUZKINAK/COMENTARIOS**

Gobernu taldeak aurkeztutako zuzenketa transakzionala ez onartuta / Enmienda transaccional presentada por el equipo de gobierno rechazada

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 5 (EH Bildu, E.Podemos)
EZ/NO: 5 (PP)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 14 (PNV, PSE-EE)

**91.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

2021eko apirilaren 21eko Ebazpenaren bidez maiatzaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrientzako eta gainerako toki-erakundeentzako laguntzak argitaratu ziren. Argitalpenaren arabera, laguntza horiek bi ebazpen bereizitan banatuko dira: bata, erakunde pribatuen proiektuetarako eta, bestea, udalerrien

**91.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/AYUDAS DEL GOBIERNO VASCO POR LA CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS.**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

El pasado 11 de Mayo se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco (BOPV) mediante la Resolución de 21 de Abril de 2021 las ayudas a municipios y demás entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que realicen proyectos en materia de convivencia y derechos humanos. Estas ayudas, según describe la publicación, se dividirán en dos resoluciones separadas: una destinada a proyectos de entidades privadas y otra para

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

eta gainerako toki-erakundeen proiektuetarako.

proyectos de municipios y demás entidades locales.

Ebazpen horren helburua da laguntza hauen deialdia egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek garatutako proiektuak finantzatzeko, baldin eta gure gizartean bizikidetzaren, giza eskubideen errespetuaren, enpatiaren eta elkartasunaren kultura sustatzen eta bultzatzen badute. Helburu hori bera lortu nahi genuen 2020ko azaroan Tokiko Bizikidetza Foroa sortzeko mozioa aurkeztu genuenean, Udalbatzarrak Osoko Bilkuren areto honetan bertan onartu zuena.

El objetivo de dicha Resolución es convocar estas ayudas para que sean destinadas a la financiación de proyectos desarrollados por municipios y demás entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que promuevan en nuestra sociedad una cultura de convivencia, de respeto de los derechos humanos, de empatía y solidaridad. Este mismo objetivo es el que perseguíamos con la presentación de nuestra moción para la creación de un Foro Local de Convivencia en el mes de Noviembre de 2020 y que salió aprobada en este mismo salón de Plenos por la corporación.

Gure ustez, alkateak proiektu honekin hartu zuen konpromisoa kontuan hartuta eta, halaber, oraindik prozesu honi ekin gabe jarraitzen duela gogorarazita, gure iritziz une hau egokia da oinarriak ezartzen joateko eta legegintzaldi hau alferrik ez pasatzeko gure gizartean oraindik burutu gabe dauden oroimen, justizia eta erreparazioa lortzeko hain beharrezkoa dugun Tokiko Bizikidetza Foroari forma ematen hasi gabe. Laguntza horiek argitaratzea egokia iruditzen zaigu elkarrizketak abiarazteko, taxutu nahi dugun bideari forma emateko eta arlo horretan adituak diren pertsonekin eta aurrera egiten lagunduko diguten elkarteekin espazioak sortzeko.

Creemos que, teniendo en cuenta el compromiso que la Alcaldesa adquirió con este proyecto y que aún continúa pendiente iniciar este proceso, vemos adecuado este momento para poder ir sentando las bases y que no pase esta legislatura en vano sin haber empezado a dar forma al Foro de Convivencia Local que tanto necesitamos, por la Memoria, justicia y reparación que continúa pendiente en nuestra sociedad. La publicación de estas ayudas nos parece oportuno que podamos ir iniciando conversaciones, dando forma al camino que queremos trazar e ir creando espacios con personas y asociaciones expertas en la materia que nos ayuden a avanzar.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten diogu Getxoko Udaleko Osoko Bilkurari:

Por todo ello, presentamos al pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

ERABAKI-PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko Udalak Bizikidetzaren Tokiko Foroa ahalik eta lasterren abian jartzeko beharrezkoak diren elkarrizketei ekingo die, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen

1. El Ayuntamiento de Getxo iniciará las conversaciones necesarias para poner en marcha lo antes posible el Foro Local de Convivencia, teniendo en cuenta experiencias cercanas y

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

arloko hurbileko esperientziak eta tokiko jardunbide egokiak kontuan hartuta.

buenas prácticas locales en materia de paz, convivencia y derechos humanos.

2. Getxoko Udalak datozen hilabeteetan aurkeztu beharreko proiektua zehaztu ondoren eskatuko ditu laguntza horiek, ebazpen horretan eta erarik egokienean egingo den deialdian jasotako gaiak kontuan hartuta.

2. El Ayuntamiento de Getxo solicitará dichas ayudas una vez se determine el proyecto a presentar en los próximos meses, teniendo en cuenta las materias recogidas en dicha resolución y en la convocatoria que sea más adecuada.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Paula Amieva
Carmen Díaz
Ibon Rodríguez
Javier Elorza
Ignacio Uriarte

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 5 (EH Bildu, E.Podemos)
EZ/NO: 5 (PP)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 14 (PNV, PSE-EE)

**92.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: COVID19 TXERTOETARAKO SARBIDE UNIBERTSALA.**

**92.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/EL ACCESO UNIVERSAL A LAS VACUNAS DEL COVID19.**

Aho batez, honako mozio hau onartu da:

Por unanimidad se aprueba la siguiente moción:

Azkenaldian gertatu den osasun publikoko larrialdi garrantzitsuena dugu gure aurrean. 3.3 milioi pertsona baino gehiagok galdu du bizitza mundu osoan. Mundu-ekonomiak bilioika dolar galdu ditzake immunizazio mailak ez badu azkar gora egiten mundu osoan. Nazioetako osasun sistemak erortzear daude, herrialde askotako ekonomiak zapalduta eta milioika pertsonen bizibidea arriskutan.

Estamos ante una de las emergencias de salud pública más grave de la historia reciente. Ya se han perdido más de 3,3 millones de vidas en todo el mundo. La economía mundial puede perder billones de dólares si la tasa de inmunización no aumenta rápidamente en todo el mundo.
Los sistemas nacionales de salud están cerca del colapso, economías enteras están doblegadas y el medio de vida de millones de personas está en juego.

COVID-19aren aldaera berriek erakusten digute birusa toki guztietan menperatu arte, ez dugula irabaziko. Urtebete geroago, argi daga txertoen

Las nuevas variantes de la COVI D-19 demuestran que no venceremos al virus hasta que lo derrotemos en todas partes. Un año después queda claro

fabrikazioa eta erabilgarritasuna esponentzialki handitzea eta mundu mailan bidezko banaketa bermatzea premiazkoak direla. Honek, ezagutza, datuak, baliabideak eta jabego intelektuala zabalki elkarbanatzea eskatzen ditu, diru- sarrera ertain eta txikia duten herrialdeekin batez ere.

Erakunde desberdinek patenteen liberalizazioa eskatzen egin duten lana eskertzen dugu, hauen artean, Amnistía lnternacioanl, Oxfam lntermón, Medicas sin Fronteras eta Right to Cure kanpaina. Aldi berean, Estatu Batuetako Administrazioak patenteen liberalizazioa bultzatzeko iragarkiari ongi etorria egiten diogu eta, uste dugu, orain Europar Batasunari dagokiola pausuok jarraitzea. Espainiak gauza interesgarriak agertu ditu, baina neurri zehatzetan bihurtu behar dira.

Zentzu berean azaldu dira Osasunaren Mundu Erakundeko Zuzendaria, munduko 100 gobernu baino gehiago, gizarte zibileko ehundaka elkarte eta sindikatu. Beraiekin bat egin dugu Europako batzordeari eta EB-ari mailarik gorenean eztabaida dezaten eskatzeko, behin behineko salbuespenak bultzatu ditzaten Merkataritzarekin Lotutako Jabetza lntelektual eta Ezaguerari buruzko Akordioetan (ADIPC gaztelaniaz). Hegoafrikak eta lndiak proposatutako salbuespenak jabetza intelektuala eta ezaguera partekatzea erraztuko luke. Ekimen honekin jabetza intelektualak sortutako monopolioak ekidituko litzateke eta zuzenbideko ziurtasun eza deuseztatuko litzateke. Honek jarduteko askatasuna eskaintzen du eta ondorioz, erabilgarritasuna,

que debemos aumentar de manera urgente y exponencial la fabricación y la disponibilidad de vacunas y garantizar su reparto equitativo a nivel mundial, lo cual requiere compartir de forma amplia el conocimiento, los datos, los recursos y la propiedad intelectual, especialmente con los países de ingresos bajos y medianos.

Agradecemos la labor de organizaciones de diversa índole solicitando la liberación de las patentes, tales como Amnistía Internacional, Oxfam lntermón, Médicos Sin Fronteras, la campaña Right to Cure ... Y tomamos en cuenta la solicitud hecha por diferentes países como India o Sudáfrica. Al mismo tiempo damos la bienvenida al anuncio de la Administración de los Estados Unidos o del Parlamento Europeo de apoyo a la liberalización de las patentes y consideramos que ahora le toca a la Unión Europea seguir sus pasos. España ha hecho interesantes anuncios, pero hay que materializarlos en medidas concretas.

En este mismo sentido se han manifestado el Director General de la Organización Mundial de la Salud, más de 100 gobiernos nacionales, cientos de organizaciones de la sociedad civil y sindicatos, y nos unimos a ellos para instar a la Comisión Europea y a los Estados Miembros de la UE a que debatan al más alto nivel, y apoyen la exención temporal y puntual de determinadas obligaciones recogidas en los Acuerdos sobre los Aspectos de los Derechos de Propiedad Intelectual relacionados con el Comercio (ADPIC). La exención propuesta por Sudáfrica y la India facilitaría la posibilidad de compartir la propiedad intelectual y el conocimiento. Con esta iniciativa se evitarían los monopolios generados por la propiedad intelectual y eliminaría la



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

eskuragarritasuna eta merketasuna handitu eta azkartzeko lankidetza ahalbidetuko litzateke.

inseguridad jurídica, ofreciendo la libertad de operar y permitiendo una colaboración que aumente y acelere la disponibilidad, accesibilidad y asequibilidad de las vacunas para la COVID-19 a nivel mundial.

Gure gizarteek, garezti ordaindu dute jadanik pandemiarekin lotutako bizitza galera eta atzerapen ekonomikoa. Egoera hau txarrera doa egunetik egunera. Horretaz gain, diru publiko kopuru handia daga COVID-19aren inguruko teknologietan egiten ari diren aurrerakuntzak bultzatzen. Txertoa biztanleria guztira ahalik eta azkarren heltzeko elkarrekin lan egitea eta galarazten duten oztopo guztiak kentzea guztion intereserako da.

Nuestras sociedades ya han pagado un alto precio en vidas y en retroceso económico debido a la pandemia, y esto no hace más que crecer día a día. Además, hay grandes cantidades de dinero público detrás de la innovación en las tecnologías para la COVID-19. Está en el interés de todos y todas trabajar conjuntamente para asegurar que la vacunación llegue lo más rápido posible a toda la población y en todo el mundo y para ello es urgente cooperar y eliminar todos los obstáculos que lo impiden.

Guzti honengatik, Espainiako Gobernuari zuzendutako hurrengo eskaera adostu du:

Por todo ello:

1. Mundu mailako lankidetza oztopoak kentzea, txertoen hedapena, behar besteko ekoizpena eta mundu guztian garaiz eta zuzentasunez banatzea berma daitezen. Hor sartu beharko litzateke beste estatuei laguntza teknikoa eta ekonomikoa eskaintzea, Osasunaren mundu erakundeak ezarritako zientzia eta COVID-19 baliabideak elkarbanatzeko mekanismoetan elkar laguntzea; hala nola, COVID-19 -aren kontrako Tresnen Irispen Azeleradorea (ACT-A) eta honen oinarri den COVAX, herrialde arteko txertoen bidezko banaketarekin lotuta dagoena.

1. Instamos al Gobierno de España a cooperar a escala mundial y eliminar los posibles obstáculos que impidan garantizar que las vacunas se desarrollan y fabrican en cantidad suficiente y distribuyen luego a tiempo y de manera inclusiva en todo el mundo. Esto abarca prestar asistencia técnica y económica a otros Estados, colaborar en mecanismos establecidos por la OMS para compartir ciencia y recursos COVID-19, tales como el Acelerador del Acceso a las Herramientas contra la COVID-19 (ACT-A) y su pilar para el reparto equitativo de vacunas entre países (COVAX).

2. Europar Batasuneko estatuei eskatzen die, Indiak eta Hegoafrikak Munduko Merkataritza Erakundean aurkeztutako ekimena, aldi baterako salbuespena txertoen jabetza intelektualarekiko, ekipoekiko eta COVI D 19aren kontra egiteko

2. Pide a los estados de la Unión Europea a que apoyen la iniciativa presentada por India y Sudáfrica ante la Organización Mundial del Comercio sobre una exención temporal de los derechos de propiedad intelectual sobre las vacunas, los equipos y los



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

tratamenduekiko. Eta, Europako Batzordeak babestu dezala Munduko Merkataritza Erakundean aldi bereko patenteen etetea. Eta farmazia konpainiei eskatzen die beraien ezagupenak eta datuak partekatzeko, Munduko Osasun Erakundearen COVID 19aren kontrako teknologiaren sarbidearen bitartez.

tratamientos destinados a la lucha contra la COVID-19; y en todo caso, que la Comisión Europea apoye en la OMC la suspensión temporal de patentes; e insta a las empresas farmacéuticas a que intercambien sus conocimientos y datos a través del Acceso Mancomunado a Tecnología contra la COVID-19 (C-TAP) de la Organización Mundial de la Salud.

3. Akordio hau Espainiako Gobernuko Presidentziari, Autonomi Erkidegoko Osasun Sailari eta ondorengo erakundeei: Amnistía Internacional, Médicos Sin Fronteras eta Oxfam Intermón jakinaraziko zaie.

3. El Ayuntamiento de GETXO comunicará este acuerdo a Presidencia del Gobierno de España, al Departamento de Salud de la Comunidad Autónoma y a las entidades Amnistía Internacional, Médicos Sin Fronteras y Oxfam Intermón.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Carolina Uribe
Ignacio Uriarte
Carmen Díaz
Mikel Bildosola
Eduardo Andrade

**IRUZKINAK/COMENTARIOS**

Ordekatzeko zuzenketa transakzionala onartuta / Enmienda transaccional de sustitución aceptada

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 24 Aho batez/Unanimidad

**93.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDALEKO GIZARTE-KONTSEILUA SORTZEA.**

**93.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/LA CREACIÓN DEL CONSEJO SOCIAL MUNICIPAL.**

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Euskadiko Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak printzipio gidari gisa ezartzen du herritarrek gizarte zerbitzuetan parte hartzeko bideak ezartzea. Arau berean ezartzen da udal-mailako gizarte kontseiluak sortzea, kontsultarako eta aholkularitzarako

La Ley 12/2008 de 5 de Diciembre, reguladora de los Servicios Sociales en Euskadi, establece como principio rector el establecimiento de cauces para la participación ciudadana en los Servicios sociales. La misma norma prevé la creación de Consejos Sociales Municipales con carácter consultivo y

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

organoak izango direnak gizarte zerbitzuen plangintzari, antolaketari eta funtzionamenduari buruzko gaietarako eta, horrela, gai horiek definitzen lagunduko dute, eztabaidaren bidez eta proposamenak organo eskudunei aurkeztuz.

asesor para los temas relativos a la planificación, organización y funcionamiento de los servicios sociales, contribuyendo así a su definición mediante el debate y la elevación de propuestas a los órganos competentes.

Getxoko Udalean Berdintasun Kontseilua dagoen bezala, emaitza oso positiboekin, badira beste sektore batzuk, hala nola haurrak, adinekoak, gazteak edo gizarte zerbitzuak, beste udal-arlo batzuekin elkarreraginean daudenak eta herritarrengandik asko jaso dezaketenak.

De la misma forma que existe el Consejo de igualdad en el Ayuntamiento de Getxo, con resultados muy positivos, hay otros sectores, como infancia, mayores, juventud o servicios sociales, que interactúan con otras áreas municipales y sobre las que la ciudadanía tiene mucho que aportar.

Beste alde batetik, nahiz eta Getxoko Udalean gizarte zerbitzuen urteko memoriak ditugun zerbitzu horien egoerari eta bilakaerari buruzko oinarrizko informazio gisa, esan behar da ikusten dugula ez dagoela informaziorik eta partaidetzarik Gizarte Kontseiluan sor litezkeen beste gai batzuei dagokienez. Eta pandemiaren ondorioz gizarte-eragileekin elkarreraginean aritzeko Elkarrizketa Sozialerako Mahaia izeneko espazioa sortu bazen ere, Mahaia horrek ez du inolako arau edo erregelamendurik ezartzen duenik organoan nola hartu behar den parte eta, halaber, ez dago aktarik eta ez zaigu aldian-aldian espazio horretan hitz egiten denaren berri ematen. Eta proposamen honekin, hain zuzen ere, eskatzen duguna da Elkarrizketa Sozialerako Mahaia hau Gizarte Kontseilu bihurtzea, gizarte-eragile berak eta beste batzuk izango dituena, araudia izango duena eta nolabaiteko funtzionamendu arrunta eta gardena izango duena.

Por otra parte, aunque en el Ayuntamiento de Getxo disponemos de las memorias anuales de los servicios sociales como información básica sobre su situación y evolución, apreciamos una falta de información y participación en otros temas que podría ser generada en el Consejo Social. Y aunque gracias a la pandemia, se creó un espacio que se llamó Mesa de Diálogo Social para interactuar con agentes sociales, la misma no está regulada por ningún reglamento que hable de la forma de participación en la misma, ni se disponen de actas ni se nos informa periódicamente de lo que se habla en dicho espacio. Y con esta propuesta, precisamente lo que solicitamos es que esta Mesa de Diálogo Social pase a ser un Consejo Social con los mismos agentes sociales y otros, con reglamento, y cierto funcionamiento ordinario y transparente.

Bere funtzioen artean honako hauek egongo lirateke:

➔ Erabiltzaileen eta Gizarte Zerbitzuetan esku hartzen duten beste eragile batzuen aldarrikapenak, iritziak eta proposamenak entzutea.

Entre sus funciones estarían:

➔ Escuchar las reivindicaciones, opiniones y propuestas de los usuarios y usuarias, así como de otros actores que intervienen en los Servicios

Hobekuntza handia ekarriko luke zerbitzu horien plangintzan, eta nabarmen lagunduko luke ekintza-ildo nagusiak zehazten, hots, herritarren parte-hartzea benetakoa bihurtuz; are gehiago une honetan, pandemia betean jarraitzen dugunean, eta gizarte arloan laguntzen eskariak gora egin duela eta gizarte-arreta behar dela erakusten duten zifrekin.

➔ Benetako informazioa biltzea, bai gizarte zerbitzuen erabiltzaileen gogobetetasunari eta asebetetasunari buruzkoa, bai pobrezia eta/edo gizarte-bazterketa murrizteko zerbitzu horiek duten eraginkortasunari buruzkoa, etengabeko jarraipena egitea ahalbidetuko duten inkesten eta beste bitarteko objektibo batzuen bidez.

➔ Egindako ekintzak eta gizarte-langileen, etxez etxeko arreta-zerbitzuaren, boluntarioen eta zuzenean inplikatutako erakundeen bidez eskainitako zerbitzuen nahikotasuna ebaluatzea. Hala denean, udal, foru eta EAEko erakundeei aldaketak eta hobekuntzak egiteko proposamenak planteatzea.

➔ Udaleko beste arlo batzuekiko harremana gizarte-gaiei eragiten dieten arloetan, hala nola oztopo arkitektonikoak kentzea, etxebizitza soziala, kontratuetako klausula sozialak, beharrezkoak izan daitezkeen zuzeneko laguntza berriak, etab.

➔ Beste gizarte zerbitzu batzuekiko eta, hala badagokio, hurbileko udalerrietako gizarte kontseiluekiko harremana, gaur egun zorroko zenbait zerbitzu partekatzen dituzten eskualdekoez gain, kohesio handiagoa lortzeko eta baterako ekintzak proposatzeko. Horrek erakundeen arteko koordinazioa erraztuko luke, arlo eta zerbitzu espezializatu batzuetan jada lantzen ari dena.

Gizarte Kontseilua honakoek osa dezakete:

Sociales. Supondría una gran mejora en la planificación de los mismos y contribuiría de forma significativa a la determinación de las principales líneas de acción, haciendo real la participación ciudadana; más en este momento, en el que nos seguimos encontrando en plena pandemia y con cifras que demuestran el aumento de la demanda de las ayudas y necesidad de atención social.

➔ Recabar información real, tanto sobre la satisfacción de los usuarios y usuarias de los servicios sociales, como de la eficiencia de los mismos en la reducción de la pobreza y/o exclusión social, a través de encuestas y otros medios objetivos, que permitan hacer un seguimiento continuo.

➔ Evaluación de las acciones ejercidas y de la suficiencia de los servicios ofrecidos a través de las trabajadoras sociales, servicio de atención a domicilio, voluntariado y organizaciones directamente implicadas. Propuestas de cambios y mejoras en su caso a las instituciones, tanto municipales como forales y de la CAV.

➔ Relación con otras áreas municipales en cuestiones que afecten a temas sociales, como pueden ser la eliminación de barreras arquitectónicas, vivienda social, cláusulas sociales de los contratos, nuevas ayudas directas que puedan ser necesarias, etc.

➔ Relación con otros servicios sociales y, en su caso, Consejos Sociales de municipios próximos, además de los comarcales con los que se comparten ya actualmente algunos servicios de la cartera, para una mayor cohesión y propuesta de acciones conjuntas. Esto facilitaría la coordinación interinstitucional que ya se está trabajando en algunas áreas y servicios especializados.

El Consejo Social podría estar compuesto por:



Sinatua: Firmado: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

- Alkatea, edo hark eskuordetutako pertsona, gehi udal-talde bakoitzeko ordezkari bat.
- Gizarte zerbitzuen arloko gaietan eragina duten edo arlo edo zerbitzu horiekin zerikusia duten eskumenak dituzten Udaleko arlo edo zerbitzu guztietako ordezkariak;
- Sindikatuak, enpresak eta hirugarren sektoreko erakundeak;
- Elkarteak, erabiltzaileen erakundeak eta boluntarioak.

Udaleko teknikarien eta kasuan kasu zeregin zehatzetarako beharrezkoa den edo eskatzen zaion edozein profesionalen parte-hartzea eta aholkularitza ere izango luke.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten diogu Getxoko Udaleko Osoko Bilkurari:

ERABAKI-PROPOSAMENA:

1.- Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du Elkarrizketa Sozialerako Mahaia Gizarte Kontseilu bihurtzeko, kontuan hartuta horrelako organoak jasotzen dituen 12/2008 Legea. Kontseilu honen xedea da parte hartzea, entzute aktiboa eta gardentasuna sustatzea.

2.- Getxoko Udalak lantalde bat jarriko du martxan, gizarte zerbitzuetako arduradun tekniko gorenak eta udal-talde guztietako ordezkari batek osatua (beste arduradun tekniko batzuei irekita egongo dena), Gizarte Kontseiluaren funtzionamendua arautuko duen erregelamendua elkarrekin egin ahal izateko.

- El Alcalde o Alcaldesa, o persona en quien delegue, mas un representante de cada grupo municipal;
- Representantes de cada una de las áreas o servicios del Ayuntamiento con competencias que incidan o estén relacionadas con materias del ámbito de los servicios sociales;
- Organizaciones sindicales, empresariales y del tercer sector;
- Asociaciones, organizaciones de usuarios/as y voluntariado.

Contaría también con la participación y asesoría del personal técnico del Ayuntamiento y de cualquier profesional que en su momento fuera necesario o sea requerido para tareas concretas.

Por todo ello, presentamos al pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

1.- El Ayuntamiento de Getxo se compromete a convertir la actual Mesa de Diálogo Social en un Consejo Social, teniendo en cuenta la Ley 12/2008 donde se recogen este tipo de órganos, para fomentar la participación, la escucha activa y la transparencia.

2.- El Ayuntamiento de Getxo pondrá en marcha un grupo de trabajo compuesto por el máximo responsable técnico de los servicios sociales y un/a representante de cada grupo municipal (abierto a otros/as responsables técnicas) para poder elaborar de manera conjunta un reglamento que regule el funcionamiento de dicho Consejo Social.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Paula Amieva

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/06/29 Fecha: 29/06/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/06/30 Fecha: 30/06/2021

Carmen Díaz
Nerea Guijarrubia
Eduardo Andrade
Ignacio Uriarte

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 14 (PNV, PSE-EE)

**GALDE-ESKEAK**

Ez dago.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se formulan.

**HERRITARREN GALDERAK**

Idazkari nagusiak galdera irakurri ditu, eta alkateak erantzun ditu. Galdera hauek egin dituzte:

Jesús Urrutia Oleagak, Andra Mari Gure Lurra elkartearen izenean, HAPOren aldaketa-aurreikuspenei eta berrikuspenari buruzko galdera bat egin du.

**PREGUNTAS DE LA CIUDADANÍA**

El Secretario General da lectura a una pregunta, que es respondida por la Alcaldesa, formulada por:

Por Jesús Urrutia Oleaga, en representación de la Asociación Andra Mari Gure Lurra, sobre previsiones de la revisión del PGOU.

Eta beste aztergairik ez zegoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman zuen egun horretako 14:10ean.

Saio honen laburpena transkribatu da, eta bideo-akta sistema baten bidez audobisual euskarrian egindako grabazioaren osotasuna bermatzen duen ondorengo aztarna elektroknikoa ***SHA512 - baecc93a49e6c10f856a4d0e362fb6b93e2b2b85bf439d28000f9cd83095b11b681cc244b4061b19e0ed2654152add8ee8b7e7e2ef212d8bfd6f012c5827c6c4***
Nik Idazkari Nagusiak eta Alkateak nirekin sinatuz, horren guztiaren fede ematen dut.

*Ikus-entzunezko artxiboa Getxoko Udalaren bideotekara joz kontsulta daiteke, esteka honetan:*

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Alcaldesa levantó la sesión siendo las 14 horas y 10 minutos de este día.
De esta sesión, cuyo extracto se ha transcrito, y de la grabación en soporte audovisual realizada mediante un sistema de video-acta, con la siguiente huella electrónica que garantiza la integridad de la grabación: ***SHA512 - baecc93a49e6c10f856a4d0e362fb6b93e2b2b85bf439d28000f9cd83095b11b681cc244b4061b19e0ed2654152add8ee8b7e7e2ef212d8bfd6f012c5827c6c4***
Como Secretario General y firmando la Alcaldesa en unión mía, doy fe.

*El archivo audiovisual puede consultarse accediendo a la videoteca del ayuntamiento de Getxo en el siguiente enlace:*

http://getxo.seneca.tv/s/CxQVPRqxTDdqfufhvyZBmbIbTd4opH1bS5zzZfZZsjdMas1i